

Hartu guztia, bidaiia hastera doa!

IKASBILetik hartua eta IKAn moldatua

Uda bukatu da eta guztiok faltan botatzen ditugu izan ditugun oporrak, egin ditugun bidaiak, abenturak... Bidaiak egin baino lehen, gauza asko aurreikusi eta planifikatu behar dira: nora joan, nola, zer egin, zer eraman... Edo agian nahiago duzu planik ez egitea eta bidaiak erakusten dizun bideari jarraitzea.

Segur aski hurrengo urtean zer egingo duzun edo nora joango zaren pentsatzen hasi zara. Oraindik denbora asko falta da, baina euskaltegian egingo duzun abentura hastear dago!



Horregatik, sekuntzia honetan hurrengo ariketak egingo dituzu:

- Bidaitzeko modu desberdinei buruzko audio bat entzun eta erantzun egokia aukeratu.
- Seguru bidaiatzeko aholkuei buruzko testu bat irakurri eta aholkuak emateko baliabideak landuko dituzu
- Gure bidaiak hasteko zorian dagoenez, dekalogo bat osatu ikasturte hau ondo ondo aprobetxatzeko!

1. Nola bidaiatzea gustatzen zaizu?

Josu Iztuetari egin dioten elkarrizketa entzun eta aukeratu hor agertzen diren esaldiak egia edo gezurra diren.



<https://labur.eus/ztzWR>

	Egia	Gezurra
Asko irakurtzea ere bada bidaiatzeko modu bat, Iztuetaren ustez.		
Pertsona batzuek nahiago dute aurretik ezer ez jakin bisitatuko dituzten tokiei buruz.		
Josu Iztuetak ez du ezer irakurtzen toki berri batera joan baino lehen.		
Tolosaldeko gida-liburua ingelesez eta frantsesez argitaratu dute.		
Gida-liburuan ez dute taberna edo jatetxe zehatzik aholkatzen.		

2. Seguru bidaiatzeko aholkuak

Irakurri bidaia-asegurua kontratatzeko aholku hauek eta erreparatu bertan erabiltzen diren formei.

BIDAIA-ASEGURUA KONTRATATZEAN...

- **Gorde ezazu** bidaiari buruzko dokumentazio guztia: publizitatea, aurrekontua, kontratua, fakturak...
- **Eskatu** beti kontratua idatziz.
- **Ziurtatu** bidaiaren erreserban ezinbesteko informazio guztia **agertzen dela** (prezioa, datak, garraioak, ostatuak...).
- **Egiaztatu** kontratuan bidaiaren baldintza guztiak **jasotzen direla**.
- **Gogoan izan ez duzula zure gain hartu beharko** aldez aurretik jakinarazi ez dizuten kostu gehigarririk.
- Internet bidez kontratatu behar baduzu, **egiaztatu** webgunea **segurua dela**.
- **Konpara itzazu** agentzia bat baino gehiago, eta **irakurri** beste pertsonen iritziak.

AHOLKUAK

Aholkuak emateko modu asko daude eta gehienetan aditz partizipioa erabiltzen da, baina badira beste modu batzuk ere:

- T(Z)EA

Interesgarria da ibilbidea aldez aurretik prestatzea.

Komeni da euritarako arropa eramatea.

BEHAR aditz-lokuzioa:

Pirinioetara joateko oinetako egokiak eraman behar dira.

Argaldu nahi baduzu, jateko ohiturak aldatu beharko dituzu.

GOGORATU

Aholkuak emateko batzuetan agintera erabiltzen da:

- Etxea txukun mantendu nahi baduzu, kendu oinetakoak sartu baino lehen.
- Zoazte oinez, autoa han aparkatzea zaila da eta.
- Jar itzazu, ken ezazu...
- Galdeiozu. esaiozu. emaidazu...

Eta zuk, emango dizkiguzu 4-5 aholku seguru bidaiatzeko? Nahi baduzu, zure bidaietan gertatutakoak kontuan hartu eta berriro ez gertatzeko aholkuak eman ditzakezu: bidaiak prestatzeko/kontratatzeko aholkuak, bidaiak bertan kontuan hartzekoak, maletak prestatzerakoan...

Seguru bidaiatzeko aholkuak



3. Aholku-dekalogoak

Lehen esan dugun bezala, gure abentura hastear dago... Beraz, ikasturtea ondo-ondo aprobetxatzeko, dekalogo bat sortu zure bidaiak primeran ateratzeko.

Ikasturtea ondo aprobetxatzeko dekalogoak

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.
- 7.
- 8.
- 9.
- 10.

ERANTZUNAK

1. Nola bidaiatzea gustatzen zaizu?

	Egia	Gezurra
1- Asko irakurtzea ere bada bidaiatzeko modu bat, Iztuetaren ustez.	X	
2- Pertsona batzuek nahiago dute aurretik ezer ez jakin bisitatuko dituzten tokiei buruz.	X	
3- Josu Iztuetak ez du ezer irakurtzen toki berri batera joan baino lehen.		X
4- Tolosaldeko gida-liburua ingelesez eta frantsesez argitaratu dute.		X
5- Gida-liburuan ez dute taberna edo jatetxe zehatzik aholkatzen.	X	